

IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO JARDUERA-BILDUMA



**Anuska Soto
Verónica Ruiz
Xabier Olaso**

R300. 2016-2017

AURKIBIDEA

Sarrera	2
1.-Gela bakoitzak bere liburutegi txikia.....	3
2.-Irakurketa-agenda.....	4
3.-Irakurle-kanpaina iragartzeko lelodun kartelak.....	5
4.-Ikasleak ipuin-kontalari.....	7
5.-Eskutitzak elkarri.....	9
6.-Gogoan izateko datak.....	10
7.-JUUL kanpaina.....	11
8.-Liburu ibiltariak.....	12
9.- <i>Liburua liburu truk</i> azoka.....	13
10.-Ipuina katean.....	14
11.-Bikoteka irakurtzen.....	15
12.-Auzoko liburutegian irakurtzea.....	17
13.-Irakurlagun.....	18
14.-Solosaldu literarioak.....	19
15.-Poema-bilduma.....	21
16.-Puzzle-jolasa.....	22
Eranskina	23

SARRERA

Gauza jakina da irakurketa dela jakintza transmititzeko bitartekorik eraginkorrenetakoa. Hartara, nola irakurketaz egokiro jabetzea, hala liburuekin zaletzea, behineko helburuak izan beharko lirateke irakaskuntzan. Orobat, ikasi-irakatsi binomio ezagun horretan autonomiarako bidea ematen duen ezinbesteko elementua ere bada. Ondorioz, guztion egitekoa da ikasleengan zaletasun hori sustatzea eta liburuekiko harremana sendotzea.

Idea horren haritik ekin genion guk honako jarduera-bildumatxo hau egiteari, irakurzaletasuna sustatzearen garrantziaz ohartuta. IRALEko R300 ikastaroan egin beharreko proiektuan gai horixe hartu dugu ardatz, eta gelako irakasleen ahotik jaso dugu irakurzaletasuna bultzatzeko haien ikastetxeetan egiten dituzten jardueren inguruko informazioa. Beraz, gordailu honetan bildutakoak irakasleok erabili ohi ditugun jarduerak dira. Jasorik ditugu dagoeneko, eta orain denon esku jarri nahi ditugu, nork besteena ezagutu, eta, era berean, erabiliak izan daitezten. Hartu egizue, bada.

1.- GELA BAKOITZAK BERE LIBURUTEGI TXIKIA

AZALPENA

1.- Irakasle bakoitzak **gelako txoko bat** aukeratuko du liburutegia antolatzeko. Helburua, azken batean, zera izango da, beraz: gela bakoitzak bere liburutegitxo izatea.

2.- **Ikasleak** izango dira jardun honetan **protagonista nagusi**. Izan ere, irakaslea eragile delarik, liburutegitxo bideratzeko txoko hori **antolatu** beharko dute, **apaindu, euren gustura egokitu eta atondu**.

3.- Behin liburutegitxo izango den lekua prest dagoela, **egokiro hornitzea** izango da hurrengo urratsa. Nola egin dezakegu horniketa, baina? Ikasleek berek **etxetik ekarritako nahi beste liburu** osatuko dugu txoko hori.

4.-Behin txokoa aukeratua izan eta liburuak ere prest ditugularik, oraindik ere lan handia izango dugu liburutegia taxuz antolatu eta janzteko: liburu guztietan **jabeen izenak ikusgai jarri** (eranskailu batean edo); liburutegia beti ere ordenaturik egon dadin **arduradunak izendatu** (txandaka); liburuak **sailkatu**; honda ez daitezten **plastikoz bildu**; **kontrol-fitxak egin (ikus 5. eta 6. orrialdeak)**, eta, finean, ikasturtean zehar oso garrantzitsua izango den gune hori **geure neurrira antolatu**.

5.- Nork bere liburutegi txikia prest izateak hurrengo jarduna egiteko aukera emango digu. Zera, **liburutegi-sarea** antolatzeko moduan egongo gara.

6.-Ikasle guztiek, beren geletan ez ezik, **ziklo bereko beste geletako liburutegi txikietan ere** izango dituzte liburuak eskuragai. Hortaz, liburuak aukeratzeko eremua zabaldu egingo dugu, guztiz zabaldu ere. Hori dela eta, liburu ugari izango dira ikasleek jaso eta erabiltzeko moduan, geletako liburutegi txiki guztiek liburutegi handi bat osatuko baitute, ikastola barruko **liburutegi-sarea**, nolabait esateko.

7.- **Ikasle guztiak** abian jarri dugun antolaketa honen **jakitun** izango dira.

2. IRAKURKETA-AGENDA

AZALPENA

1.- **Irakurketa-agenda tresna egokia da** ikasleek irakurtzen dituzten liburuen inguruko informazioa jasotzeko.

2.- Ikasleak irakurri duen liburuaren inguruko **datu nagusiak jasotzeko parada** (idazlearen izena, ilustratzailearen izena, argitaletxea, urtea, generoa) ematen du, bai eta liburua noiz hasi eta noiz bukatu duen agertzeko ere. Orobat, iritzia idazteko aukera izango ikasleak horretarako propio agertzen den esparrutxoan. Azkenik, liburuaren inguruko oharrak apuntatzerik ere izango du irakurleak.

3.- Oso erabilgarria eta guztiz gomendagarria da agenda. Erosi ezean baina, irudimena zertxobait astinduz, agenda horren antzeko bat erraz egin daiteke. Beheko hau izan daiteke eredu:

Liburuaren izenburua: _____ Idazlea: _____ Ilustratzailea: _____ Argitaletxea: _____
Hiztegia:
Egitura bitxiak:
Kontaketarako oharrak:

3. IRAKURLE-KANPAINA IRAGARTZEKO LELODUN KARTELAK

AZALPENA

- 1.- Irakurle-kanpaina iragartzeko kartelak egitea ikasturtearen hasieran egokitzen da ondoen. 3-4 ikaslez osatutako taldetxoak eratuko ditugu.
- 2.- Irakurzaletasuna bultzatzeko esaldi egokiren bat pentsatuko dute taldeetako ikasleek. Orobat, honakoa zehaztuko dugu: egin beharreko kartela zer eratan bideratuko duten, nork egingo dituen marrazkiak, nork leloaren letrak, zer material erabiliko duten...
- 3.- Behin aukeraturiko leloa eta egikeraren inguruko xehetasunak taldetxoka pentsatuta eta adostuta dituztenean, **kartela egiteari ekingo diote taldean.**
- 4.- Behin lana amaitu dutenean, taldetxo bakoitzak egin duen **kartelaren aurkezpena** egingo du besteen aurrean.
- 5.- Lehen bozketa. Gelako bozketa eginez, egindako **karteletatik gustukoena aukeratuko dute** ikasleek berek.
- 6.- Geletan egindako kartel guztiak **pasillo nagusian bildu eta erakusgai jarriko dira.** Gela bakoitzean egindako bozketaren ondorioz irten den kartelaren azpian, ondoko honen antzeko **ohartxo bat** idatzita jarriko du tutoreak berak: **4. mailan aukeraturiko kartela**
- 7.- Kartel guztiak jarrita daudelarik, ikasle guztiek erakusketa ikusi eta oraingoan **ikastola mailako bozketa** egingo da. Bozketa horretan, ikasleek aurrez **geletan aukeratu dituzten karteletatik** soilik gustukoena dutenari emango diote botoa. Horretarako, zer mailatako kartela aukeratu duten idatziko dute bozka-papertxo batean, eta, ondoren, prest izango ditugun bozka-ontzietan sartu.
- 8.- Botoak zenbatutakoan, bozka horretan aukeratukoa izango da ikasturte horretako lelo/kartel "ofiziala".
- 9.- Barne-informazioa zabaltzeko den **"Berriak" orrian emango da jardun honen guztiaren berri.**

10.- Ikastalde bakoitzak, bere kartelak **korridoretik jaso, eta ikasgelara eramango ditu**. Horiek gela **apaintzeko** erabil daitezke. Bestalde, gelan bertan irten den **lelodun kartela ate ostean jarriko da**, korridoretik ikusgai. Beraz, gela bakoitzak irakurzaletasuna bultzatzeko bere kartela izango du atean ezarrita, denon bistan. Kartelok ondo baino hobeto etorriko zaizkigu ikastolako liburutegia ere apaintzeko.

4. IKASLEAK IPUIN-KONTALARI

AZALPENA

1.- Ikasleak liburu bat irakurtzen duen bakoitzean, **ahozkotasunari emango diogu tartea** ondoren; alegia, irakurri duen ipuin-liburu edo istorio horren **kontalari bihurtuko** da orain. Ondo kontatzea izango da, beraz, irakurri duela ziurtatzeko nagusiki erabiliko dugun era, eta ikasleak horren jakitun izango dira.

2.- Liburua irakurtzen amaitu orduko, **irakasleari jakinaraziko dio** ikasleak. Kontatu baino lehenago, **liburuaren izenburua eta egilea letra handiz agertzen dituen kartel** handi bat idatzi eta apaintzea izango da ikaslearen lana.

3.- Irakasleak, liburua irakurri duten hiru edo lau ikasle dituenean (denek izango dituzte iragarki-kartelak prest), **korridore hainbat txokotan kokatuko** ditu horiek, elkarrengandik urrun samar elkarri trabarik ez egiteko. Aurretiaz, liburuaren izenburuak iragartzen dituzten kartelak horman itsatsiz eta denon ikusgai jarriz **egokituko du kontalari bakoitzak bere txokoa**.

4.- Orobat, kontalari bakoitzak **ikaskide laguntzaile bat** aukeratuko du. Horren lana izango da ikus-entzuleei istorioaren nondik-norakoak agertzen dituzten **marrazkiak erakustea**, kontalariak kontatu ahala. Hori garrantzi handikoa da; izan ere, ikus-entzuleak askoz arretatsuago egongo dira entzun bitartean, liburuaren marrazkiei begira-begira.

5.- Kontalaria eta laguntzailea beren txokoan daudela, **aulki banatan eseriko dira**.

6.- Kontalari bakoitzak bere txokoa prest duenean (izenburua iragartzen duen kartela eta laguntzailea), irakasleak ikus-entzuleak izango diren ikasleei ekintza egingo den **pasillora irtetera gonbidatuko ditu**.

7.- Ikasleek kontalarien txokoak bistatuko dituzte eta, kontagai izango diren liburuen izenburuek agertzen dituzten kartelak irakurrita, **gehien interesatzen zaien txokoan eseriko dira, lurrean**.

8.- Dena gertu dagoela, txoko bakoitza itxurazkoa izango da.

9.- Dena prest? Bada, **kontalariak kontatzen hasiko dira**, laguntzaileek marrazkiak erakusten dituzten bitartean. Hamabosten bat minutu nahikotxo izango dira ekintza hau burutzeko.

10.- Irakaslearen lana **txokoz txoko ibiltzea izango da**, kontalari guztiak egokiro kontatzen ari direla ziurtatzeko.

5. ESKUTITZAK ELKARRI

AZALPENA

1.- Lehenik eta behin **argi eta garbi azalduko diegu ikasleei zer egin behar duten**. Hara, **eskutitzak idatziko** dizkiete **beste ikastola bateko ikasleei**. Zernolako eskutitzak, baina?

2.-Geure burua ezagutzera emateaz gainera, helburua hau izango da: lagun berriak egin eta irakurtzen ari garen **liburuei buruzko informazioa elkarri helaraztea eta trukaztea**. Katalogoak eta liburu-zerrendak (nahi izanez gero geuk egindakoak) bidali ahalko dizkiegu.

3.-Ekintza hau **norbanakoa** zein **kolektiboa** izan daiteke, gela mailakoa, alegia. Hots, ikasle bakoitzak urliari edo sandiari idatzi ahal dio bere kabuz. Gela mailan egiten bada, berriz, testua adostu beharko da, eta, nola edo hala, ikasle guztiek hartuko dute parte hori egiten.

4.-Ekintza hau **ikasturtean zehar** egin daiteke; iraunkorra izango da, beraz. Era horretan, gure ikasleek bitarteko egokia izango dute, lagun berriak egiteaz gainera, **liburu berrien inguruko iritziak eta gomendioak jaso** eta emateko.

5.- Ikasturtean zehar eskutitz bidez izandako harremana biribiltzeko aukera bikaina izan daiteke **egun batean denok elkartu**, elkar ezagutu eta, horren aitzakian, literaturaren inguruko jaitxo bat eratzeko.

6. GOGOAN IZATEKO DATAK

AZALPENA

Apirilak izaera literarioa du, zalantzarik gabe. Irakurzaletasuna sustatzeko programazioan bi data dira gogoan izan beharrekoak: apirilaren 2a, Nazioarteko Haur eta Gazte Literaturaren Eguna, eta apirilaren 23a, Nazioarteko Liburu Eguna.

APIRILAK 2

Nazioarteko Haur eta Gazte Literaturaren Eguna

APIRILAK 23

Nazioarteko Liburu Eguna

7. JUUL KANPAINA

AZALPENA

JUUL esaten diegu NIEk (Nafarroako Ikastolen Elkarte) antolatzen dituen liburu-hauteskunderi.

Kanpainaren helburuak:

1.- Hurrek gustukoak dituzten euskaraz idatzitako liburuak aukeratzea. Hurrek jarriko ditugu epaile. Betiere, ikasleek aukeratutako liburuak izango dira hautagai.

2.- Hurrek gustukoak dituzten liburuen ilustratzaileak aukeratzea.

Argi izan JUUL kanpaina dela ikasturteko azken ekintzatariko bat, eta Liburuaren Egunaren harira egiten dugu gurean, apirilaren 23an, hain zuzen ere.

8. LIBURU IBILTARIAK

AZALPENA

1.- Liburu ibiltarien ekimena AEBn sortu zen duela hainbat urte, eta Ron Hornbaker programatzailea izan zen horren eragile. Milaka liburu utzi dira “ahazturik” munduko bazterretan, eta, era horretan, irakurleak ugaritu. **Liburu ahantziaren hartzaileak liburua irakurri eta berriz utzi behar du beste nonbait, beste pertsonaren batek eskura dezan.** Horrek gauza bera egin beharko luke, alegia, irakurri eta beste bazterren batean aske utzi. Era horretan, **hausten ez den irakurle-kate handia lortzea** da helburua.

2. **Ideia horretan oinarritzen da “Ikastetxeko liburu ibiltariak”** jarduera. Oraingoan, baina, **ikastetxera mugatuko dugu eremua**, baina gainerakoetan, funtsean behintzat, arestian aipaturiko jardunbideari lotuko gatzaizkio.

3. Hauek dira ekintzak eratzeko irakasleek aintzat hartu eta adostu beharrekoak:

- Maila ezberdinetarako **liburu egokiak aukeratzea.**
- **Zenbat** liburu “ahaztuko” ditugun **adostea.**
- **Liburuak ekintzarako propio prestatzea.**
- Ikasle guztiei burutuko dugun **ekintzaren berri eman** eta nondik norako guztiak zehatz-mehatz azaltzea. Ekintzak iraungo badu, ezinbestean bete beharreko urrezko hiru arauak jakinarazi. **Honakoak:**

LIBURUA IRAKURRI–LIBURUA ERREGISTRATU–LIBURUA ASKE UTZI

9. LIBURUA LIBURU TRUK AZOKA

AZALPENA

1.- Liburu-azoka honen helburua ikasleei liburuak trukatzeko aukera ematea da. Informazio-orriaren bidez, egitasmoaren nondik norakoak jakinaraziko zaizkie ikasle guztiei, eta irakurzaletasuna suspertzeko helburuz egingo den ekintza honetan parte hartzera animatu.

2.- Ekaina izan daiteke *Liburua liburu truk* izenez bataiatu dugun azoka hau egiteko hilabete egokia; izan ere, era horretan **udako opor luzeetan irakurtzeko liburu berriak eskuratu ahal izango dituzte** nahi duten ikasleek.

3.- Lehenik eta behin, **bi aste** emango dira ekintza honetan parte hartu nahi duten ikasleek liburuak beren tutoreei eman diezazkieten. Liburu bakoitzagatik ikasleak **“bale bat”** jasoko du.

4.- Liburuak jasotzeko bi asteko epea iraganda, liburu guztiak bildu, eta **ikastolako liburutegi nagusian jarriko dira erakusgai**. Aurretiaz iragarritako egun jakin batzuetan ikasleak liburutegira joan ahal izango dira, batu diren liburuak ikustera, eta guztien artean **atsegin duten bat –edo batzuk– aukeratzetik izango dute**. Ordu horietan ekintza hau zuzentzeko izendatu den irakasle-arduradunari emango di(zki)ote balea(k) aukeraturiko liburu(ar)en trukean.

10. IPUINA KATEAN

AZALPENA

1.- Ipuina katean jardueraren helburua da eskolako Lehen Hezkuntzako ume guztien artean ipuin bat osatzea, Euskararen Eguna ospatzeko.

2. Egun horretan, istorio bat osatuz joango dira umeak gelaz gela. Lehen mailakoak hasiko dira ipuina idatzi eta garatzen, eta, gero, bigarren mailakoek jarraituko dute. Ondoren, hirugarrenekoek..., seigarren mailara iritsi arte. Horrela, eskola osoak hartuko du parte ipuina idazten.

Beraz, zenbat eta adin handiagokoak izan ikasleak, orduan eta gehiago irakurri beharko dute. Ipuina haien gelara iristen denean, ordura artekoa irakurri eta osatu egingo dute. Baina ezin izango dute ipuina bukatu azken mailara iritsi arte.

3.- Egunean zehar asmatutako ipuina arratsalderako grabatuta egongo da soinuarekin; ahots desberdinekin, protagonisten arabera (ahotsak irakasleek jarriko dituzte)... Eta ume guztiak, Haur Hezkuntzakoak barne, aterako dira korridoreetara ipuina entzutera.

OHARRAK

Oso polita da jarduera hau; umeek oso ondo eta pozik pasatzen dute eguna, ilusio handiarekin.

11. BIKOTEKA IRAKURTZEN

AZALPENA

1. Bikoteka irakurtzen jarduera aurrera eramateko, astero testu bat emango diegu umeei etxean irakurtzeko eta prestatzeko. Testuak jasotzen dituzten umeak *tutoreak* izango dira. Haiek, testuak prestatu ondoren, *tutorizatu*ekin landu beharko dituzte.

2. Horretarako aukeratutako saioan, umeak binaka eseriko dira, tutorea eta tutorizatu. Ordu horretarako, tutoreek oso ondo prestatuta eta irakurrita ekarri behar dute testua (hitz ezezagunak hiztegian bilaturik...). Ondoren, pauso jakin batzuei jarraituko diete. Honakoak:

2.1. Lehendabizi, tutorizatuak, testua irakurtzen hasi aurretik, zeri buruz ote den esan behar du. Horretarako, izenburua, formatua eta marrazkiak ikusi eta aztertu beharko ditu. Jarduerak egiten hasi baino lehenago, irakurgaiek proposatzen dituzten ariketak¹, aurrez, ondo-ondo ezagutuko dituzte umeek.

Hasieran agertzen diren galderak erabiliz, irakurriko den gaiari buruzko elkarrizketa bat sortuko dugu. Helburua da tutorizatuak gaiari buruz dakiena esatea.

2.2. Tutoreak irakurri egingo du. Hura izango da irakurketaren dinamizatzailerak: poliki-poliki irakurri behar du; ondo ahoskatu eta intonazio egokia erabili behar du. Horregatik da hain garrantzitsua oso ondo prestatua eramatea.

2.3. Ondoren, tutoreak eta tutorizatuak elkarrekin irakurriko dute testua, ia aldi berean. Biek irakurriko dute, baina tutoreak pixka bat aurretik, erritmoa eta intonazioa markatzeko.

2.4. GPS irakurketa egingo da. Irakurketa mota honek hiru atal ditu: *gelditu*, *pista* eta *saria*. Zertan da horietako bakoitza?

Tutorizatuak ozenki irakurtzen duen bitartean, tutoreak eskua haren sorbaldan bermatuta izango du. Hartara, tutorizatuak akats bat egiten duenean, tutoreak kolpetxo bat emango dio sorbaldan, ohartarazteko. Hori izango da akatsa egin duelako "pista". Tutorizatuaren lana izango da akatsa zuzentzea. Umeak,

¹ Ikus oharrak

akatsa zuzentzean, saria lortuko du: testuan aurrera egitea. Hala ere, helburua ez da akats guztietan etengabe gelditzea; garrantzitsuenetan baino ez dira geldituko.

3.-Ulermena lantzeko ariketak egingo dira irakurri ondoren.

4.- Tutorizatuak berriro irakurriko du ozenki.

5.- Ekintza osagarriak egingo dituzte.

Jarduerari behar besteko etekina ateratzeko, ezinbestekoa da tutoreak testua oso ondo prestatzea.

OHARRAK

Programa hau Kataluniatik ekarria da, eta berritzeguneez bideratzen dute. Edozein eskolak parte har dezake, aurrez *Bikoteka irakurtzen* ikastaroa eginda. berritzeguneez irakurgaiak eta ariketak eskaintzen dituzte, baina programan sartuta dauden irakasleak behartuak daude urtean irakurgai berri bat prestatzera, berritzeguneez bitartez denon eskura jartzeko.

Astean behin egiten da, eta gurasoekin ere egin daiteke, gurasoak prest badaude haien seme-alabekin aritzeko.

Balioespena ona izaten da, baina jarduera egiten den esparruak handia eta akustika onekoa izan behar du, ume guztiak eroso egoteko modukoa; izan ere, batzuetan, zarata traba handia izaten da ekintza hau behar bezala aurrera eramateko.

12. AUZOKO LIBURUTEGIAN IRAKURTZEA

AZALPENA

Jarduera honen helburu nagusia da ikasleei aukera ematea liburuak gune egoki batean manipulatzeko.

- 1.- Hilean behin arratsalde bat emango da auzoko liburutegian (ikasturtean 6 alditan).
- 2.- Lehenengo bisitan liburutegiko arduradunak azalduko du esparrua nola dagoen antolatuta. Gero, liburuak maneiatzeko denbora izango dute ikasleek.
- 3.- Bigarren eta hurrengo ikustaldietan, ipuintxo bat irakurriko dio taldeari liburuzainak. Ondoren, liburuak irakurtzeko aukera izango dute ikasleek.

OHARRAK

Irakurtzeko denbora, esparrua eta materialak izatea ez da beti erraza, eta hain justu horixe eransten du ekintza honek.

13. IRAKURLAGUN

AZALPENA

1.- Lehenengo eta behin erabakiko da zein gelak egingo duten lan batera. Gomendioa da bosgarren mailakoak lehenengo mailakoekin eta seigarren mailakoak bigarren mailakoekin egitea, horrela jarraitasuna emango baitzaie taldeei. Hau da, bosgarren mailan hasi, eta seigarren mailan jarraituko dute. Haur Hezkuntzako ikasleekin Lehen Hezkuntzako ikasleak arituko dira.

2.- Elkartuko diren bi geletako ordutegietatik saio bana aukeratuko da jarduera aurrera eramateko, astean behin.

3.- Ondoren, tutoreek bikoteak osatuko dituzte, ikasleen ezaugarriak kontuan izanda.

4.- Hasteko, lehenengo eta bigarren mailako ikasleek gonbidapen-gutun bat idatziko dute, eta, lehenengo saioan, irakurri egingo diete beren *irakurlagun* bihurtuko direnei.

5.- Bigarren saioan, hasiera ludikoa emango zaio jarduerari. Horretan, nagusiek txikiak onartu egin dituztela ospatuko da, eta kontratu bat sinatuko du bikote bakoitzak *irakurlagunarenganako* konpromisoa adieraziz.

6.- Hurrengo saioetan, etxean aukeratu eta prestatutako liburuxka bikotekide txikiari irakurri dio nagusiak, bai gelan, bai pasabidean (gelako zarata ekiditen saiatuko gara). Irakurri eta gero, saio bakoitzean, zerbait berezia egingo da: plastikan egindako orri-markatzailea oparitu, marrazkitxo egin, fitxatxoren bat osatu eta abar.

7.- Nagusi bik lagunduko diete txikiei gelaraino.

OHARRAK

Bikotekide bakoitzak hartzen duen rola deigarria da oso. Batez ere harritzeko modukoa da jarrera-arazoak azaldu dituzten ikasleak nola arduratzen diren bikotekide txikiarekin.

14. SOLASALDI LITERARIOA

AZALPENA

1.- Solasaldi literarioa normalean ikastetxeko liburutegian egiten da. Eta liburutegiko arduradunak edo irakasleek antolatzen dute.

2.- Solasaldiko solaskideak ikasleak izan daitezke, edo guraso eta seme-alabak, edo gurasoak bakarrik.

3.- Irakasleek (edo liburutegiko arduradunak, hark antolatzen badu ekintza) liburu bat aukeratuko dute; denek liburu bera, guztientzako adina egonez gero.

Beste aukera bat da eskainitako liburuen artean ikasleek bat aukeratzea, guztiek bera. Kontuan izan behar da denek ale bana eduki behar dutela.

4.- Denen artean adostu behar dute zer, zenbat eta noizko irakurri behar duten.

5.- Irakurleak, etxean liburuaren zati bat irakurri ahala, oharrak hartuko ditu paper batean. Deigarria iruditu zaiona islatu eta zati horren inguruko iruzkinak idatziko ditu, eta astean behin egingo den saioan partekatuko dira ekarpen guztiak.

6.- Adostutako egunean, liburutegian batu eta zirkulu batean jesarriko dira. Saioko arduradun bat egongo da. Lehenengoan irakaslea izango da. Komentarioak honela jaulkiko dira: arduradunak orrialdea aipatu eta gero, zerbait esateko duenak eskua altxatu, eta, arduradunak baimena eman ondoren, esango du zer paragrafotan dagoen komentatu nahi duena. Pasartearen ozen irakurriko du, eta baita horren inguruan idatzitakoa ere. Baten batek paragrafo berean sortutako komentarioren badu, hori esateko garaia da, ez ibiltzeko berriro ere zati hori irakurtzen.

Guzti-guztiek hartu behar dute parte. Gutxienez, komentario bat egin behar dute. Mintzatu ez direnei lehenetsuna emango zaie. Horretarako, arduraduna arituko da parte hartu dutenen izenak idazten.

Jarduera hau egiteko, eskolako liburutegia da toki egokia. Gurasoak gonbidatuta daude.

7.- Horrela jokatuko da liburua amaitu arte. Amaitu ondoren, ariketa batzuk egin daitezke: zelako amaiera emango diogun liburuari, amaierarekin bat ez

bagatoz; zer iruditu zaigun; zer pertsonaia gustatu zaigun gehien; zer-nolako jarrera dugun liburuarekiko... Edo egilearekin solasaldia egin daiteke, aukerarik izanez gero. Bestela, liburuaren zenbait alderdiri buruzko azalpenak emango dira (PowerPoint apilazioaren bidez, dokumentalak edo argazkiak ikusiz...).

8.- Helburua da ondo pasatzea irakurketa bultzatzen dugun bitartean.

OHARRAK

Nabarmendu nahi dugu zer garrantzitsua den liburua ondo aukeratzea, horrek egundoko eragina izango baitu sortuko diren komentarioen kalitatean.

15. POEMA-BILDUMA

AZALPENA

1.- Jarduera honen helburua da ikasle bakoitzak 10-12 poemaz osaturiko liburuxka bat egitea. Poema horietatik bi ikasleak berak sortuak izan behar dira.

2.- Maiatzean egingo da ikasle bakoitzak egindako poema-bildumaren aurkezpena. Ikasle bakoitzak, lehenago prestatutako bilduma horretatik, poema bat irakurriko du besteen aurrean.

3.- Liburuxka ederra eta ondo apaindua izango da.

OHARRAK

Gogoz saiatzen dira ikasleak jarduera honekin, eta gehienentzat poesiarekin lehen harremana izaten da.

16. PUZZLE-JOLASA

AZALPENA

1.- Tutoreek liburu egoki bat aukeratuko dute, eta ikasleek, bakarka, atalez atal irakurriko dute. Adostutako atalak irakurritakoan, probatxo bat egin behar dute.

2.- Hala, kapituluak irakurri ahala, irakurketa dinamizatzeko probak eginaraziko dizkiegu, nor bereak; proba guztiak gainditu ostean, puzzlearen zati bat emango zaio gelari.

3.- Probak izan daitezke, besteak beste, galderei erantzutea, hutsuneak betetzea, mapak egitea haiek lekuak kokatzeko, argazkiak bilatzea, amaiera desberdinak asmatzea, atalak gertaeren arabera ordenatzea, piktochart bat egitea... Proba horiek IKT baliabideen bidez egingo dira: Driven edo Classroom-en partekatuak.

4.- Liburua bukatzen dutenean, proba guztiak gaindituak eduki beharko dituzte, eta puzzlea osatzeko moduan egongo dira. Beraz, liburua bukatzen denean, puzzlea osatuta egongo da, eta saria jasotzeko aukera izango dute.

5.- Saria ikasleek aukeratuko dute irakaslearen baimenarekin: irteera bat, askari handi bat, jolas-ordua luzatzea, etab.

OHARRAK

Oso ondo koordinatu behar dute zikloko irakasleek.

Oso ondo pasatzen dute jarduera honekin. Oso dibertigarria da, baina lan handia eskatzen die tutoreei.

ERANSKINAK

1.- Lan honetan azaldutako jarduerak **Arabako hainbat ikastetxetan** eramaten dira aurrera, eta hango irakasleen ahotik jasotakoak dira.

“Gela bakoitzak bere liburutegi txikia”, “Irakurketa-agenda”, “Irakurle kanpaina iragartzeko lemadun kartelak”, “Ikasleak ipuin-kontalari”, “Eskutitzak elkarri”, “Gogoan izateko datak”, “JUUL kanpaina”, “Liburu ibiltariak” eta “*Liburua liburu truk* azoka” jarduerak Gasteizko **Armentia ikastolan** antolatzen dira; “Ipuina katean”, “Puzzle-jolasa” eta “Bikoteka irakurtzen”, berriz, Kanpezuko **Mendialdea IPI** ikastetxean; “Auzoko liburutegian irakurtzea” eta “Irakurlagun” jarduerak, bestalde, Gasteizko **Aranbizkarra** ikastetxean; “Solosaldiri literarioak”, Gasteizko **Aranbizkarra** eta **Gereñu** ikastetxeetan, eta, azkenik, “Poema-bilduma”, Aguraingo **BHI Aniturri** institutuan.

2. Hona hemen lan honetan aipatutako jarduerak norentzat gomendatzen diren:

JARDUERA	NORENTZAT
1.-Gela bakoitzak bere liburutegi txikia.....	HH, LMH
2.-Irakurketa-agenda.....	LMH2, LMH3
3.-Irakurle kanpaina iragartzeko lemadun kartelak.....	LMH
4.-Ikasleak ipuin kontalari.....	LMH2, LMH3
5.-Eskutitzak elkarri.....	LMH2, LMH3, DBH
6.-Gogoan izateko datak.....	HH, LMH, DBH
7.-JUUL kanpaina.....	LMH
8.-Liburu ibiltariak.....	LMH2, LMH3, DBH
9.- <i>Liburua liburu truk</i> azoka.....	LMH
10.-Ipuina katean.....	LMH
11.-Bikoteka irakurtzen.....	LMH
12.-Auzoko liburutegian irakurtzea.....	HH, LMH, DBH
13.-Irakurlagun.....	HH, LMH, DBH
14.-Solosaldiri literarioak.....	LMH2, LMH3, DBH, DBHO
15.-Poema-bilduma.....	LMH3, DBH
16.-Puzzle-jolasa.....	LMH2, LMH3